

Aldundiak abiarazi egin du N-I eta A-15 errepideak Andoainen integratzeko Hobekuntza Plan Integrala

Bazkardoko lotunearen proiektua jendaurrean jada, planak aurrera egiten du errepidea integratzeko eta auzoak hobetzeko proiektu osagarriak aktibatuz. Datorren uztailaren 1ean herritarrei zuzendutako informazio bilera ireki bat egingo da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrera jarraitzen du N-I eta A-15 errepideak Andoainen integratzeko Hobekuntza Plan Integralarekin. Bazkardoko lotunearen proiektua joan den astean argitaratu ondoren, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako departamenduak plan osoaren garapena aktibatu du, Bazkardotik Sorabillarainoko jarduketa-sorta biltzen dituen. Testuinguru horretan, azken egunotan urrats berriak eman dira hainbat lizitazioekin eta proiektuen jendaurreko erakusketekin, planaren garapenean pausu berriak eginez.

Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatu Felix Urkolak azaldu duenez, "Plana hiru lan-lote handiren bidez garatuko da, aurreikusitako jarduerak modu koordinatuan planifikatzeko eta udalerrian gaur egun martxan dauden beste proiektu batzuekin egokitzeko". Horrela, alde batetik, lizitaziora aterata da Bazkardo eta Mimendi eremuak hobetzeko eta integratzeko proiektuen idazketa (lehen lotea), eta Allurraldeko kurba eta zarataren aurkako neurriak hobetzeko idazketa-proiektua (bigarren lotea). Bestetik, jendaurrean jarri da Sorabillan biribilgune berri bat eraikitzeke proiektua. Biribilgune horrek ordeztuko du N-I errepidearen Gasteizerako irteera-adarra, GI-3610 errepidea (Andoain eta Aduna lotzen dituen) eta auzorako sarbidea lotzen dituen bidegurutzea. Sorabillako bide-txirikordatzeta eta bere ingurua ordenatzeko (hirugarren lotea) funtsezko pieza bat da.

Mimendi eta inguruaren eraldaketa sakona

Mimendi eta bere inguruaren eraldaketa planaren ardatz garrantzitsuenetako bat da, bide-azpiegitura integratzera eta inguruko auzoetako bizi-kalitatea hobetzera bideratutako esku-hartzeekin. Eremu horretan biltzen dira multzoan inpaktu handiena duten jardueretako batzuk.

Diputatuen Kontseiluak argi berdea eman dio aste honetan lehen jarduketa sorta horri dagokion proiektua idazteko lizitazioari. Horren barruan sartzen da Mimendi auzoaren aurrean, errepidearen bi noranzkoak lurperatuz, estalki bat eraikitzeke jarduketa; SAPA-Borda Berri herribide berria; Karabanetatik irteera izango duen biribilgune berri bat eta Txistokin sarbide berri bat egiteke egitasmoak.

Proiektua idazteko lizitazioa abiarazi da, 358.554 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta 11 hilabeteko epearekin.

Urkolak azpimarratu duenez, lote horrek "Andoaingo barne-konektibitatea hobetzeko, auzuneetan trafikoa murrizteko, espazio publiko berriak sortzeko eta bide-azpiegitura hiri-ingurunean eraginkortasunez integratzeko aukera emango duten jarduketak" jasotzen ditu.

Bereziki, Mimendiko estalkia planaren elementu eraldatzaileenetako bat da, udalerriko zarata-afekzio nagusietako bat ezabatzeko eta espazio publiko berri bat sortzeko aukera ematen baitu.

Era berean, trafikoaren antolamendua eta udalerraren barneko konektibitatea nabarmen hobetuko dira. Horretan lagunduko dute Borda Berriko irteera berriak, lotura zuzenagoa eta funtzionalagoa ahalbidetuko duen biribilgune batekin, Txistokiko sarbideak eta SAPA-Borda Berri herribide berriak, zeinak barne konexioa modu segurukoan eta eraginkorragoan indartuko baitu.

Segurtasuna eta zarataren aurkako jarduerak Allurralden

Aldi berean, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako departamentuak argi berdea eman dio bigarren lotearen proiektua idazteko lizitazioari, 83.728 euroan (BEZa barne) eta 7 hilabeteko epe estimatuan.

Lote honetako jarduketaren helburu nagusia Allurraldeko bihurtzea hobetzea eta eguneratzea izango da, N-I errepidearen punturik konplexuenetako bat baita Andoainen. Trazadura leundu egingo da, bide-segurtasuna areagotzeko, trafikoaren arintasuna hobetzeko eta arriskuak murrizteko. Zehazki, errepidea hiru erreira zabalduko da bi noranzkoetan.

Lote horretan, halaber, Andoaingo erdiko zatian, Aita Larramendi ikastolaren eta Sorabilla artean, errepidearen inpaktu akustikoa murrizteko jarduketa multzo bat sartu da. Pantaila akustiko berriak instalatzeaz gain, proiektuak paisaian integratzeko soluzioak garatuko ditu, lur-mugimenduetan, landaredi-muinoetan eta landaketa berrietan oinarrituta. Azpiegiturek Miranda pasealekuan, Zumean, Etxeberrietan, Karrikan eta Sorabillan, besteak beste, duen soinu-eragina eta ikus-inpaktua gutxituko da.

Esku-hartzeari esker, gainera, Allurraldeko kirol-eremuan ala udalerriko espazio publikoen sarean sar daitekeen gune berri bat berreskuratu ahal izango da.

Bide-txirikordatzearen hobekuntza eta biribilgune berria Sorabillan

Hirugarren jarduketa-eremu ala loteari dagokionez, hau da, Sorabillatik A-15 errepidea Nafarroarantz banatzen den arte, plan integralak hainbat esku-hartze aurreikusten ditu, Sorabillako txirikordatzeari behin betiko soluzioa emateko eta haren antolamendua hobetzeko.

Lote hau Sorabillako biribilgune berriaren proiektuarekin lotuta dago eta aste honetatik jendaurrean dago ikusgai proiektu hori. 687.160 euroko lizitaziorako oinarritzko aurrekontua du, eta lau hilabeteko egikaritze-epea aurreikusten da biribilgune berria eraikitzeko.

Gasteizko noranzkoan N-I errepidearen irteera-adarra, Andoain eta Aduna lotzen dituen GI-3610 errepidea eta auzorako sarbidea lotuko ditu biribilgune berriak, orain dagoen bidegurutzearen ordez.

Hobekuntza Plan Integralaren barruan gauzatuko den lehen jarduketetako bat da, eta hilabete gutxi berru inguruko industrialdeei lotutako zirkulazio-intentsitate handiko puntu bati soluzioa ematea ahalbidetuko du. Biribilgune berriak aukera emango du

mugimenduak antolatzeko, egungo nahitaezko geldialdiak ezabatzeko eta zirkulazio jarraituagoa, seguruagoa eta eraginkorragoa ahalbidetzeko, abiadura murrizten laguntzen duten sarbideen eta trafikoan sartzea errazten duten irteeren bidez.

Halaber, N-I errepidearen irteeran dagoen egungo autobus-geltokia birkokatuko da, eta errepidearen azpiko pasagunean jarriko da, erabiltzaileentzat segurtasun eta erosotasun baldintza handiagoak eskainiko dituen espazio estali batean.

Bilera informatiboa uztailaren 1ean

Gipuzkoako Foru Aldundiak informazio bilera irekia deitu du uztailaren 1erako, 19:00etan, Bastero Kulturgunean, Bazkardo eta Sorabilla arteko Hobekuntza Plan Integralaren barruan aurreikusitako proiektu eta jarduerak zehatz-mehatz aurkezteko. Bilera horretan Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatu Felix Urkolak eta departamenduko arduradunek parte hartuko dute, eta esku-hartzeen irismena, bakoitzaren egoera eta horiek gauzatzeko aurreikusitako hurrengo urratsak ezagutarazteko aukera emango du.

Urkolak azpimarratu duenez, saio honek Aldundiak "orain arte egindako lanaren berri gardentasun osoz emateko, hartutako erabakiak eta jarduera bakoitzaren izateko arrazoiak azaltzeko eta Andoainerako aurreikusitako hobekuntza planaren xehetasunak herritarrekin partekatuzeko" duen borondateari erantzuten dio. Ildo horretan, azpimarratu du bilerak zalantzak argitzeko, galderari erantzuteko eta bizilagunen ekarpenak jasotzeko ere balioko duela, proiektuak osatu ahal izateko.

Donostia, 2026ko ekainak 25.